



Agur

KRISTALEZKO ATE BIKOITZETIK sartu da Maria, beroki gorri-gorrian bilduta, mila koloreko eskularru eta lepokoaren babesean; poliki, irribarretsu. Atezaina egun on lasaiaz agurtu du. Ez ditu Jonek, baina, begiak ordenagailuaren pantailatik altxatu. Betaurreko txikien atzeko begi urdin langileek ez diote mostradorearen beste alderaino iritsi den Mariari begiratu. Mariak badaki, ordea, Jonek bada-kiela han dagoela; izan ere, lau hilabete pasatu dira, astero-astero leihatila berera hurbiltzen denetik, aste bakoitzean hurrengo asterainoko bizi baimena izango balitz bezala, Joni hitzordua eskatzen dionetik.

Badaki, jakin ere, Jonek, Maria duela mostradore aurrean, gaur ere irribarrez, beste txanda bat, beste aukera bat eskatzera etorria dela.

Gogoratzen du, lau hilabete aurrerago, Maria etorri zitzaion lehen aldia, haren begi bizi-bizi dantzariak Usabiaga doktorearentzat, onkologo famatuarentzat, ordua eskatu ziotenean. Gutxi bezala etorri zen lehen aldi hartan Maria, pozik, heriotza iragarriko zion mediku lanpetuarekin tokitxo bat eskuratzerara. Betaurreko gainetik zuzendu zitzaion orduan Jon, eta irribarrea eskaini zion lehen aldi hartan, haren pozaz harrিতuta, haren bizi-indarraz kutsatuta; lausoa, edo goibela, edo izutua, edo haserrea izaten baitzen 4. leihatilaraino iristen ziren bezeroen aldarrea gehienetan. Izan ere, gaixotasun larrien berri izan ondoren etortzen zitzaizkion berari pazienteak, hurrengo kontsulta baterako txanda eske. Baina Maria... Mariari bizitza zerion begietan, ile luze ondulatu beltz-beltzean, *bakero* estuetan erraz mugitzen ziren zango lirainetan, gerri malguan, kamiseta gorri estuaren azpian antzematen zen bular emankorrean, ahotsaren atseginean. Kostatu zitzaion Joni lehen aldi hartan begiak ordenagailura zuzentzea, ordutegiak behatu eta eskatzen ziotena ematea; udazken hartako hego haizeak lurreko hostoak aineratu eta bere baitan bilduz erabiltzen zituen; antzera sentitu zen Jon, Maria inguratzen zuen aura bizi, nabarraren arnasan zurrupatua. Eta gero, ordutegi osoa eskaini zion, egokien zitzaion ordua aukera zezan. Mariak eskerrak eman zizkion irribarrez eta Jonek begiekin lagundu zion kanpoko kristalezko ate bikoitzearaino eta handik harantzago.

Lehenengo egun hartan, Jonek lana bukatu eta ospitalea utzi aurretik, Mariaren berri jakin nahi izan zuen, nor zen, zergatik zettorren. Eta gero, haren irudiaz blai, kanpora atera zen. Maria sarrera aurreko banku grisean zegoen eserita, aurpegia eguzkirantz biratuta, begiak itxita, irribarrea ezpainenetan. Ondoan jarri zitzaion Jon, eta oraingoan, hitza eskaini zion; norbaiten zain zegoen galdetu zion.

Bizitza dastatzen ari zela erantzun zion Mariak, begiak itxita.

Hainbeste hitz egin dute ordutik gaur arte! Izan dira ferekak, eta muxuak, eta egunak, eta gauak, eta negarrak, eta barreak, ordutik gaur arte!

Baina egun hauetan, haserretu-edo egin dira. Ez dira bizitzeko moduan ados jartzen. Mariak tratamenduak utzi nahi ditu, minbizia ez ezik, gogoa ere hiltzen dizkiotelako, eta barrea, eta bizitzeko duen denbora laburraren poza, eta bizia bera.

Jonek ez du hori ulertzen, geroari begira dago bera beti, gero ondo egoteko gaur egin behar duenaren menpe, ez du gerorik gabeko bizitzarik ulertzen eta Maria balizko geroaz konbentzitu nahi du. Bereari eutsi nahi dio eta ez dio Mariari begiratu nahi, badakielako haren irribarreak limurtuko duela berriz, erraz.

Eta gaur, Mariak ez dio astebete barruko txandarik eskatu mostradorearen beste aldetik, agur esan dio, badoala eguzkiak berotzen duen lurraldeetara, epelean bizi nahi duela, edo hil, eta bere ondoan nahiko lukeela beti, "beti motza" bada ere. Hori esan dio, eta, buruan pirata ausartaren espiritua itsatsia daraman artilezko zapi beltza, ezpata bihotzean, bizinahia begi beltz nekatuetan, mostradorea utzi eta kristalezko ate bikoitzerantz abiatu da. Orduantxe altxatu ditu Jonek begiak. Betaurrekoak ordenagailu ondoan utzi, *Goretexa* aulki adarretik hartu eta atzetik hurbildu zaio Mariari. Barruaren beroa eskaini dio eskuan. Maria estu lotu zaio berearekin. Kristalezko ate bikoitzaren beste aldeko hotza arnastu dute, batera.

Karmele Igartua